

DIRU ITURRIAK

Gure enpresa bizikletak alokatzen dituen enpresa bat den horretan diru sarrerak bi motatakoak izango dira. Alde batetik, guk bizikletak alokatzeko zerbitzua emango dugun horretan ordainketa bakarreko diru-sarrerak edukiko ditugu, jendeak egunen batean erabili nahi badu baino egunerokotasun bat gabe. Bestalde, ordainketa errepikariak izango dira bazkide finkoek ordainduko dituztenak. Hilabetean kopuru finko bat ordainduko dute hauek, eta horrela denbora horretan zehar nahi duten beste erabili ahalko dute bizikleta.

Enpresak diru-sarrerak lortu ahal izateko modu asko eta asko daude. Guk, diru sarrerak lortzeko hainbat metodo erabiliko ditugu. Lehenik eta behin, gure diru sarrera nagusia harpidetzagatik lortuko genukeen dirua izango da. Jendea gure enpresaren bazkide bihurtuko zen, hilabeteko kuota finko bat ordaindu beharko lukete, horrela jendea bazkide txartelarekin nahi duen guztia ibiliko da.

Bigarrenik, erabileragatiko saria izango da gure beste metodo bat diru sarrerak lortzeko, hau da bazkide ez diren baina momenturen batean zerbitzua erabili nahi dutenea. Egia da gure proiektuan diru sarrera nagusiak bazkidatzen oinarritzen direla, bazkide zaren bitartean eskuragarri dituzu bizikletak nahi duzunean, hala ere, gure ustez zerbitzu on bat izango da larrialdi batean norbaitek erabili nahi du bizikleta bat, zerbitzua eskaintzea. Modu honetan diru iturri errazak lortuko ditugu, eta gainera, jendeari asko erraztuko diogu lana

Prezioei dagokionez, bi motatako tarifak izango ditu enpresak. Hasteko, lehen azaldu dugun bezala bazkidetzaren bidez jendeak hilabeteko kuota bat ordainduko du eta prezio hori finkoa izango da 30€koa gutxi gora behera eta denbora aurrera doan heinean prezio hori igotzeko aukera egongo da. Gainera, jendeak erabilera librea egiteko aukera egongo denez hauen prezioa altuagoa izango da, hauek orduko 2€koa izango zen egunean zehar. Gauean zehar berriz, 00:00-07:00, jendeak behar handiagoa duenez, 3€ orduko izango zen prezioa.

Bukatzeko, publizitatearen erabilera egingo dugu. Inguruko bizikleta enpresaren bati, adibidez, Errenteriako Ciclos Iñakiri, publizitatea egingo diogu. Gure bizikletak egongo diren lekuan kartel handi bat jarriko dugu enpresa horren izena azpimarratuz, eta horren truke Ciclos Iñakik gure bizikleten mantenuan lagunduko digu, gainera, negozioa ondo joaten bada, bizikleta pare bat musu truk aterako litzaizkiguke.

